

Azaroaren 18an
URTEAN ZEHARREKO 33. IGANDEA

Agurra

Mahai santuan bildu gaituen Kristo Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Munduko guztiko kristauak biltzen dira igandean, Jaunaren eguna ospatzera. Gure Eukaristi batzarra, munduan barrena gaur egingo diren batzar guztiekin batera, egun batean denok zeruko mahaian izango dugun otorduaren irudi da. Itxaropenez, jar gaitezen Jainkoaren presentzian, Berak bete gaitzan eta santu egin.

Damu-otoitza

Gure bekatuen damua agertuz presta gaitezen Meza Santurako:

- Jesus Jauna, gu salbatzea zatozena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, sakabanatuak biltzera zatozena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gure itxaropena sendotzera zatozena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko gure Jauna,
emaguzu Zuri beti pozik zerbitzu egitea;
on guztien egile Horren zerbitzuan bizitzea baita guretzat
egiazko zorion betea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Salbamena ez da geuk irabazteko kontua. Jesu Kristorengan salbatuak gaude guztiok. Harengan bizitzea eta Harengan itxaropen izatea da egiten zaigun deia.

Lehenengo irakurgaia (*Dn* 12, 1-3)

Daniel profetaren liburutik

Egun haietan, ni, Daniel, negarrez nengoen, eta hitz hau aditu nuen Jaunarengandik: «Egun haietan, jaikiko da Mikel goi-angerua, zure herriko seme-alaben zaintzailea. Larrialdi handia izango da, herriak izaten hasi zirenetik berdinik gabekoa. Baina, aldi hartan salbatuko da zure herria; liburuan idatzita dauden guztiak. Lurreko hautsetan lo dauden asko esnatuko dira; batzuk betiko bizirako, besteak betiko lotsatarako. Ortziazen distiraz distiratuko dute jakintsuek; eta askori zuzenbidea erakutsi ziotenek, izarrek bezala argi egingo beti, gizaldiz gizaldi».

Erantzun-salmoa (*Sal* 77, 3-4. 23-24. 25 eta 54)



Zu zai - tut, Jau - na, on - da - su - na.



Jauna da nire ondare eta edontzia;

Zuk daukazu eskuetan nire zoria.

Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;

eskuinean daukadala, ez naiteke dardara. R/.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,

haragi honek ere bakean du atsedena. ____

Ez baituzu nire bizia Leizera egotziko,
ezta zure zintzoa ustelak hartzen utziko. R/.

Bigarren irakurgaia (Heb 10, 11-14. 18)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Beste apaiz guztiak, egunero ari dira beren apaiz lanean, opari berak askotan eskaintzen, opari hauek inola bekatu rik kendu ezin dutelako. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bakar bat eskaini eta gero, Jaungoikoaren eskuin aldean jarri zen behin betiko, eta itxaroten dago, «bere etsaiak bere oinpeko eduki ditzan arte».

Opari bakar baten bidez, santutasun betea ekarri die behin betiko, santu egindakoei. Barkamena dagoenean, ez dago bekatuengatik opari eskaintzarik.

Aleluia (Lk 21, 36a. c)



Egon beti erne, eta egin otoitz,
zutik egon ahal zaitetzten
Gizonaren Semearen aurrean. R/.

Ebanjelioa (Mk 13, 24-32)

Homiliarako argibideak

Gertu da, ate joka

Mundu berri bat espero dugu, justizia ekarriko duen mundu bat, eta ez natura eta gizakiak gizakia esplotatzea. Historian, beti egon dira gehiago edo gutxiago muturrekoak izan diren taldeak, munduaren egoera katastrofikoaren aurrean Eskriturek iragarritako amaiera etortzea espero dutenak (Dn 12,1-3). Jainkoaren Hitzari ez zaio interesatzen unibertsoaren suntsitze fisikoa, **gizakiaren salbamena** baizik. Existentzia zapaldu mota baten desagertzea iragartzen du, Jainkoaren Erregetzarekin, gizakiek bizitza aldatuko duena (Mk 13,24-32). Jainkoak ez digu munduaren amaierarekin mehatxatu nahi, baizik eta Bera dela historiaren Jauna erakutsi, eta hori (Historia) ez dela zentzurik gabeko gertakari jarraipen huts bat. Salbazioaren eta liberazioaren lekua da historia. Historia Jainkoagandik dator eta Jainkoarengana doa, eta erdian Kristo Jesusen gertaera dago zentzua ematen diona. Salbamena ez da gauza bat, Kristoren pertsona da. Hark inauguratutako pribilegiozko garaian bizi gara.

Historiak Kristo Jesusekin izandako eraldaketa sakona erakutsi nahi du Elizak, fededuna beste denbora batean kokatuta. Horregatik, urte liturgikoaren amaiera ez dator bat urte zibilaren amaierarekin. Gizaki guztien munduan bizi gara, noski, haien ohiturak eta tradizioak partekatzen ditugu, baina beste espiritu batek mugitzen gaitu. Urte liturgikoaren amaiera iristearekin batera, Elizak gogorarazten digu **behin betiko denbora** edo azken denbora bizi dugula. Kristoren piztueraren ondoren hasi da bizimodu berria, kristau bizitza, bi koordinadetan kokatutakoa. Jainkoaren gizon egiteak oinak lurrean edukitzera eramaten gaitu, munduaren Erregetzaren eskaeren araberrako eraldatzearekin konprometituta. Bakearen, justiziaren eta kreaioaren integritatearen alde borrokatzera garamatza. Beste lerroak, behin betiko errealitatearenak, Jaikoaren horizontera begirarazten digu; etengabe dator guregana, egoera bakoitzean, gertaera bakoitzean, pertsona bakoitzean.

Jainkoaren etorkizunera begiratze horrek bizitza honetan behin betiko ez kokatzera garamatza, gure ondorengo belaunaldietan pentsatu gabe bizitza unean-unean gozatzeko besterik dela ez sinestera. **Garaien zeinuak irakurtzen** laguntzen digu, negua joan dela eta Espirituaren udaberria bizitzea posible dela erakusten dutenak. Hark gaitzen gaitu historian interpelatzen diguten probokazioetan Jainkoaren presentzia ikusteko, gainerako gizakiek beti gauza bera bakarrik ikusten duten bitartean edo xalo-xalo mugarik gabeko aurrerapenean sinesten duten bitartean. Fededun gisa, ezin dugu behin-behinekoa dena behin betikoa denarekin identifikatu. Gizateriaren aurrerapen edo aurrerabide teknologiko bakar batek ere ezin du Jainkoaren lekua bete, historiaren Jaunarena.

Jesusek bete egin du historia, egikaritu, ezeztatu gabe, gure **itxarote eta itxaropenerako** tarte bat utzita beti. Horixe da Kristorengan betetakoa gugan ere beteko dela itxarotera garamatza bertute teologala. Piztuera gure bizitzan ere argi eta garbi ager dadin espero dugu, bataioan jaso eta maitasun osoz gordetzen dugun hazia, Jainkoaren bizia gugan, osotasunera eramanda.

Jaun berpiztuak orientatzen eta erakartzen du gure bizitza, eta ez munduko gertakari ikusgai eta ikusgarri batek. Hura da gure maitasunaren eta gure itxaropenaren ardatza. Gure itxaropenak bere presentzia misteriotsuaren zeinuak aurkitzen laguntzen digu, gure munduko arazoan aurrean etsipenean eror ez gaitezen, baizik eta itxaropenez eta **kreatibitatez** lan egiteko gai izan gaitezen. Kristau itxaropenak ez garamatza besoak gurutze geratzera, Jainkoak mirariz esku-har dezan zain; aitzitik, badaki Jainkoak Harekin kolaboratu nahi duten gizakien bitartez jarduten duela. Eukaristian orientatzen dugu geure bizitza Jaunarengana, eta "Zatoz, Jesus Jauna" oihukatzen dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta onar ditzala onginahiz gure eskariak:

- Jaunak, on guztiaren sortzailea denak, dei egin diezaiela gaur ere erlijioso/erlijiosa bizitzan jarraituko dioten gizon-emakumeei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, indar guztien iturria denak, argi ditzala herrietako agintariak, bere eginkizunetan eta erabakietan asma dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, bizitzaren emalea denak, begira diezaiela errukiz gose direnei eta eman diezagula guztioi horiekiko arreta izateko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, maitatzeko agindu zigunak, eman diezagula etsaiak maitatzeko indarra eta inori gaitzik ez egiteko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, zeure herria behin ere ahazten ez duzuna, entzun gure otoitzak eta emaguzu hildakoak piztuko direla sinestearen poza; isur guban Zure Espiritua, maitasunez itxaron dezagun herri guztiak bere erreinuan bilduko dituen Zure Semearen etorrera. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure dohain santuak harturik,
apalki eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak
bere oroigarri egiteko agindu digun Eukaristia honek
ugal dezala guban maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**